



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 6a

22. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 departamentuarteko plan orokor bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia zerbitzuak berma ditzan Osasun-bidearen bidez. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Film Commission” bat abian jar dezan Nafarroan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespeta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetze berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetze arloan dagozkion eskumenen transferentzia egina egonen baita. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Adierazpen politikoa, genero indarkeriaren azkenengo biktimen oroitzapenezkoa eta emakumeen aurkako indarkeria ekintzak egiten dituztenak arbuiatzekoa. Osoko Bilkurak berretsia (10. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Gobernuak “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa finantzatzeko erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (12. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2008ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta

2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2008ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2007ko abenduaren 14ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 departamentuarterko plan orokor bat egin dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 departamentuarterko plan orokor bat egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 departamentuarterko plan orokor bat egin dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru urteko jarduketa-plan orokor bat presta dezan lau hilabeteko epean (2008, 2009 eta 2010. urteetarako), eta bertan, Donejakue Bidea dela-eta, egunera ditzan abian dituen programak, birformula ditzan helburuak eta beste batzuk proposa ditzan.

2. Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 departamentuarterko plan orokorrek ondoko zehaztapenak bederen bildu beharko ditu:

– Jarduera esparru zehatzen aipamena, eta horiek planifikatzeko eta abian jartzeko administrazioeko organo arduradunaren zehaztapena.

– Esparru bakoitzeko ekintza zehatzak, eta bakoitzaren gutxi gorabeherako kostua.

– Ekintza garrantzitsuenak gauzatzeko kronograma.

– Aurreikusitako ekintzak egiteko aurrekontu beharrianak, kasua bada.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera**

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat

aurki dezan Nafarroako Antzerki Eskolak egoitza egonkorra izateko, Iruñean antzerkia sustatu eta irakasteko lanean jarraitu ahal izan dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat azter dezan, zentro horretan etorkizunean emanen diren antzerki-ikasketei aitorten ofiziala ematera bideratutako hezkuntza-eskaintza bat sortzeko.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Sodena enpresa publikoaren bitartez, Iberdrola enpresan dituen akzioak sal ditzan merkatuaren egoerak bide ematen duenean inbertsio horri etekin ekonomiko egokia ateratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du salmenta horretatik heldu diren funtsak inbertsiora bidera ditzan, aberastasuna sortu eta enplegua balio erantsiarekin sortze aldera, hartara gizarte-etekin handiena lortuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du denik eta adostasun handiena bila dezan parlamentu-, gizarte- eta ekonomia-taldeen artean, arestiko bi puntuetan premiatutakoa betetze aldera.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan, balio dezan koordinatzeko, erlazionatzeko eta planifikatzeko Nafarroako Gobernuaren departamentuek hurrengo urteetan izanen dituzten azpiegitura-proiektuen eta -jarduketan exekuzioa, bai eta departamentuok hurrengo urteetan garraioaren eta komunikazioaren arloan izanen dituzten politiken exekuzioa ere.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia zerbitzuak berma ditzan Osasunbidearen bidez.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia zerbitzuak berma ditzan Osasunbidearen bidez". Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2007ko abenduaren 11ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia zerbitzuak berma ditzan Osasunbidearen bidez**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala berma diezazkien podologia zerbitzuak, Osasunbidearen bidez, podologia arazoak izateko arriskua duten herritarrei, osasun laguntza prebentiboa helburu, eta murrizteko, horrela, arazo podologikoak dituzten pertsonen ezgaitasuna eta mugikortasun eza. Esku-hartze horiek, erabiltzailearen beharraren arabera, era ambulatorioan edo etxean eginen dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzu-zorroaren azterketa eta jarraipenerako batzorde bat sor dezan.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Film Commission” bat abian jar dezan Nafarroan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da «Film Commission» bat abian jar dezan Nafarroan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Film Commission” bat abian jar dezan Nafarroan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Film Commissiona

sortu eta abian jar dezan, hau da, ikus-entzunezko sektorearen zerbitzuko bulego teknikoa, Nafarroako Foru Komunitatea plato zinematografiko gisa garatzea eta sustatzea helburu, film luzeak, laburrak, dokumentalak, publizitate iragarkiak, argazki saioak eta sektorearekin zerikusia duten beste jarduera batzuk ekoizteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan orokor bat aurkez dezan hiru hilabeteko epean, zeinak gutxienez ere honakoak jaso beharko baititu:

- Helburuak.
- Antolaketa eta plan estrategikoa.
- Beharrei buruzko programa, honakoei dago-kienez: espazioak, organigrama, langileak, aurrekontua, azpiegitura eta finantzaketa.
- Lege esparru aurreikusia eta kudeaketa eredua.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du turismo kulturalari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan, Nafarroako

Foru Komunitateak arlo horretan dituen potentzialtasunak baliarazi ahal izan daitezten. Plan horrek gutxienez ere honakoak jaso beharko ditu:

- 1.- Nafarroako turismo kulturalaren azterketa eta diagnosis.
- 2.- Gure inguruarekiko azterketa konparatua.
- 3.- Plan zuzendaria.
  - Helburuak
  - Denbora helburua.
  - Abian jarri beharreko ekintzak
  - Aurreikusitako zenbateko ekonomiko orokorra.
  - Plana abian jartzeko behar diren langile- eta aurrekontu-baliabideak.

2. Nafarroako Parlamentuak sei hilabeteko epea emanen dio Nafarroako Gobernuari plan hori presta dezan; plana Legebiltzarrean aurkeztu beharko da ezagutu eta onesteko.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan**

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan eta beste erabilera batzuk dituzten bideentzat alternatibak bila ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan diren bide berdeen plan integrala presta dezan, eta horretarako hitzarmenak egin edo sina ditzan administrazio eskudunekin, partzuergoekin bat etorritik baldin eta eratuta badaude, halako moldez non bide horiek egiaz leheneratuko baitira.

---

**Erabakia. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatu dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**Erabakia. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespeta dezan**

Nafarroako Parlamentuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen dio alda dezala

Nafarroako Foru Komunitatearekiko bere jokabidea eta Nafarroako herritarren borondatea errespeta dezala, erkidego politiko bereki eta bereizi bateko kide izatea erabaki baitute, Espainiako herritarren osotasunarekin solidario, eta haiekin konpromiso batean elkarturik demokraziaren bilaketan, sakontzean eta tinkotzean, bai eta herritarren eskubi-deenean ere.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak."

Legebiltzarrak 2008ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko abenduaren 14ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetxe berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetxe arloan dagozkion eskumenen transferentzia egina egonen baita.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetxe berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetxe arloan dagozkion eskumenen transferentzia egina egonen baita."

Legebiltzarrak 2008ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko abenduaren 11ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan.**

#### MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 28an egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako

edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan".

Mozio hori 2007ko azaroaren 16ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Adierazpen politikoa, genero indarkeriaren azkenengo biktimen oroitzapenezkoa eta emakumeen aurkako indarkeria ekintzak egiten dituztenak arbuiatzekoa.**

#### OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 28an egindako bileran, berretsi zuen Eledunen Batzarrak 2008ko otsailaren 28an onetsitako adierazpen politikoa, genero indarkeriaren azkenengo biktimen oroitzapenezkoa eta emakumeen aurkako indarkeria ekintzak egiten dituztenak arbuiatzekoa.

"Genero-indarkeriak berriro ere astindu du gure bizikidetzaren bakea. Joan den asteartean lau emakume erail zituzten, eta erailketa horien aldebereotasuna emakume askok jasaten dituzten indarkeria eta tratu txarren eragin larrien ohar-tarazpen tragiko bihurtu zaigu, tamalez.

Herritarrok eta herria ordezkatzan dugun erakundeok geurea bezala sentitzen dugu duintasunaren eta ongizate pertsonalaren aurka hain eraso doilorra pairatzen dutenen bihozmina.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuan ordezkariak daukagun indar politikook:

1. Guztiz atsekabeturik aldarrikatu nahi dugu Laura, M<sup>a</sup> Victoria, Virma eta M<sup>a</sup> Jesús en oroitzapena, lauak genero-indarkeriaren azken biktimak, bai eta haien ahaideena ere, haiek ere gure gaitzespen bateratua izan behar duen izugarrikeria honen biktima baitira. Hitz ematen dugu guztiok elkar harturik lan egiten dugula horrelako jokabideak gure eguneroko bizikidetzatik kanporatzeko.

2. Ozenki adierazi nahi dugu erabat ziur gaudela gizarte osoaren arbuioa daukatela bai hiltzailleek bai, oro har, emakumeen aurkako indarkeria ekintzak egiten dituztenek, horrelako pertsonak mespretxurik handienaz jokatzan baitute beren biktimen askatasun eta duintasunaren aurka, bai eta gizarte demokratiko batean gizon eta emakumeen arteko harremanak bideratu behar dituzten berdintasun eta elkarrekiko begirunearen balioen aurka ere.

3. Emakumeen aurkako tratu txar fisikoak edo psikologikoak egiten dituztenei exijitzen diegu uko egin diezaietela beren gehiegikeria deitoragarri,

eta entzun ditzatela gizarteak aho batez plazaratzen dituen gaitzespen-hitzak, haien biktimek dauzkaten eskubideak errespetatu behar dituztela oroitarazten dietenak.

**4.** Behar diren ekintzak abiarazteko eta baliabideak eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu, arriskuan sentitzen diren emakume guztiek aterpe pertsonala eta babesa izateko behar diren neurriak gauzatzeko, bai eta beste ezein emakumek inoiz eraso gehiagorik jasan behar ez izateko behar direnak ere.

**5.** Herritar guztiei dei egiten diegu ezagutzen dituzten genero-indarkeriako ekintza guztien era-

bateko gaitzespena adieraz dezaten eta ekintza haiek poliziari eta emakumeen laguntzarako zentroi sala diezazkieten, horrela jokatzeari biktimei laguntzeko lekukotasunik baliagarriena den aldetik. Emakumeen aurkako indarkeria desagertaraztea guztion betebeharra da, erakundeena eta herritarrena, eta soil-soilik guztiok jabeturik eta konpromisoa harturik lortu ahalko dugu giza eskubideen urraketa mingarri horiek amaitzea.”

Iruñean, 2008ko martxoaren 3a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Gobernuak “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa finantzatzeko erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Gobernuak “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa finantzatzeko erabilitako aurrekontu-kredituei buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Nafarroako Gobernuak “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa finantzatzeko erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (12. or.).
- II. “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketaren datu nagusiak (12. or.).
- III. Txostenaren helburuak eta norainokoa (13. or.).
- IV. “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa (13. or.).
  - IV.1. Erakusketari buruzko jarduketan eta erabakien kontakizun kronologikoa (13. or.).
  - IV.2. Erakusketaren ekonomia-emaiza (14. or.).
    - IV.2.1. Erakusketaren ekonomia-emaiza (14. or.).
    - IV.2.2. Erakusketako dirusarrerak (16. or.).
    - IV.2.3. Erakusketaren defizita (16. or.).
- V. Ondorioak (16. or.).
  1. eranskina: erakusketaren aurrekontua, gastu-kontzeptuen arabera (18. or.).

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (19. or.).

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako alegazioei comptos ganberak emaniko erantzuna (19. or.).

**I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2006ko abenduaren 18an eginiko bilkuran erabaki zuen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak eskatuta, Comptos Ganberari txosten bat eskatzea, “Navarra, un futuro entre todos” izeneko erakusketa finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruz.

Lan hori Comptos Ganberak 2007rako onetsi zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek egin du, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Sodenako nahiz Nafarroako Gobernuko langileek lan hau egitean emaniko laguntza.

**II. “NAVARRA, UN FUTURO ENTRE TODOS” IZENeko ERAKUSKETAREN DATU NAGUSIAK.**

Nafarroako Gobernuak, 2004ko irailaren 20an, erakusketa modular eta ibiltari bat antolatzea erabaki zuen, Nafarroaren indarra erakuste aldera. Erakusketak, hartara, “azken aurrerapen teknologikoak izanen ditu eta, halaber, komunitateko sektore eta errealitate desberdinetan teknologia horiek nola aplikatzen diren erakutsiko du”.

Nafarroako Gobernuak, erabaki haren bidez, ondokoa xedatu zuen:

- Erakusketaren plangintza eta antolamendua Sodenaren esku uztea.

- Lan-talde bat eratzea, erakusketaren edukia, aurrekontua, finantzaketa, epeak eta gainerako elementuak zehazteko.

Lan-talde haren erabakiari jarraikiz, Sodenak fundazio batekin kontratatu zuen erakusketaren diseinua, ekoizpena eta errealizazioa. Aurreikusitako kostua hiru milioi eurokoa izan zen, gehi BEZA, Baluarteak alokatu eta publizitateko gastuak alde batera.

Erakusketa babesletza bidez finantzatzea aurreikusi zen, eta Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea sor litekeen balizko defizita.

Erakusketa, Baluartean 2006ko azken hiruhilekoan egin baitzen, doakoa izan zen.

### III. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Txostenaren helburua da, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldearen eskaerari erantzunez, "Navarra, un futuro entre todos" izeneko erakusketa finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituak fiskalizatzea.

Norainokoari dagokionez, fiskalizazioa egiterakoan aintzat hartu dira eskuarki onartutako kontu-ikuskatzailetzako arauak, eta beharrezkotzat jo diren probak eta prozedurak gauzatu dira fiskalizazio lanaren helburua lortzeko.

Erakusketa finantzatze aldera Gobernuak onetsitako aurrekontu-kredituei buruzko informazio eta dokumentazioa eskatu zien ganbera honek Nafarroako Gobernuko departamentuei -horien titularrak baitira lan-taldea osatzen duten kontseilariak eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari, zuzendari nagusia ere lan-taldekkoa baita.

Azterketa lana Nafarroako Gobernuan bertan eta Sodenan egin zen.

Aztertutako aldia 2004tik 2007ra bitartekoa da; erakusketa antolatzeke erabakia hartu zenetik hura likidatu bitartekoa, alegia.

Ganbera honek "Navarra, un futuro entre todos" erakusketaren legezkotasunari buruzko auditoria egin zuen 2004ko ekitaldian, eta horri buruz "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko enpresa publikoak: langileen aukeraketa, kontratuak, enkarguak eta transferentzien ondoriozko dirusarrerak" izeneko txostena eman zuen 2007ko otsailaren 26an.

### IV. "NAVARRA, UN FUTURO ENTRE TODOS" IZENEN ERAKUSKETA.

IV.1. ERAKUSKETARI BURUZKO JARDUKETEN ETA ERABAKIEN KONTAKIZUN KRONOLOGIKOA.

Horra, hurrenkera kronologikoan emanda, erakusketari buruzko jarduketa eta erabaki nagusiak:

#### 2004. urtea

2004ko irailaren 20a. Nafarroako Gobernuak ondokoa erabaki zuen:

- "Navarra...!" izeneko erakusketa bat egitea, Nafarroaren irudia hedatzea helburu.

- Lan-talde bat eratzea, erakusketaren edukia, aurrekontua, finantzaketa, epeak eta gainerako elementuak zehazteko.

- Sodena, S.A.ren esku uztea erakusketaren plangintza eta antolamendua.

En el citado acuerdo se indica que este encargo "reviste ciertas peculiaridades respecto del sistema general de encomienda regulado, puesto que antes de la fases de ejecución material de los trabajos, debe realizarse una asistencia dirigida a la determinación de las condiciones generales de la exposición, incluido el presupuesto y su financiación, en el que además deberán colaborar las distintas esferas competenciales afectadas.."

2004ko irailaren 27a. Lan-taldea formalki eratu zen. Taldeko kideak dira Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria -bera dataldeko buru-, Komunikazio zuzendari nagusia, Gobernuko lehendakariaren aholku-emaile bat eta Sodenaren ordezkari bat.

2004ko azaroaren 2a. Lan-taldeak ondokoa erabaki zuen:

- Sodenako zuzendari nagusiari agintzea Arte Viva Europa fundazioarekin harremanetan jar dadin, jakiteko ea "fundazioak erakusketaren diseinua, ekoizpena eta errealizazioa egiteko modurik duen".

Batzordeko kideek, 2004ko azaroaren 2ko aktak jasotakoaren arabera, erakusketa egin zezaketzen zenbait enpresa espezializatu jarri zituzten mahai gainean aztergai. Madrilen Konstituzioaren urteurrenaren karietara egindako erakusketaren arrakasta eta "lan txukuna" nabarmendu ziren, zeina Arte Viva Europa fundazioak diseinatu eta egin baitzuen. Fundazio horrek esperientzia egiaztatua du kalitate eta prestigioiko erakusketak diseinatu eta antolatzen.

- Erakusketarako 3 milioi euroko aurrekontua ezartzea, alde batera utzita BEZa eta Baluarteak alokatzeko gastuak.

2004ko abenduaren 20a. Vianako Printzea Era-kundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Sodenako zuzendari nagusiari karta bidez adierazi zion une hartan ez zegoela erakusketarako aurrekonturik eta zehaztu gabe zegoela haren finantzaketa, baina departamentuaren asmoa zela Nafarroako Gobernuari proposatzea urte anitzeko gastua onesteko akordio bat, erakusketak eragin zezakeen defizita finantzatzeko aldera.

2004ko abenduaren 21a. Lan-taldeak baimena eman zuen Arte Viva Europa fundazioa kontratatzeke erakusketaren diseinua, ekoizpena eta errealizazioa egite aldera, eta esku eman zion Sodenako zuzendari nagusiari fundazio horrekin asmo-akordio bat sina zezan.

Lan-taldearen bilera hartan aurreikusi zen erakusketa babesletza bitartez finantzatzea, eta Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea sor litekeen balizko defizita.

Egun horretan berean, Sodenako Administrazio Kontseiluak bere zuzendari nagusiaren esku utzi zuen asmo-akordio bat sinatzea Arte Viva fundazioarekin, kontratu bat formalizatze aldera erakusketaren antolamenduari begira, hiru milioi euroko aurrekontuaren barruan; akordioa, ordea, baldintzatuta zegoen, Nafarroako Gobernuak onetsi egin behar zuelako enkargua finantzatzeko behar zen akordioa.

2004ko abenduaren 28a. Sodenak, S.A.k eta Arte Viva Europa fundazioak asmo-akordioa sinatu zuten, eta erakusketaren aurreproiektua sinatu zen.

Asmo-akordio horretan ezarri zen ezen Nafarroako Gobernuak, 2005eko urtarrilaren 15a baino lehen, erakusketa finantzatzeko akordioa onetsi eta aurkeztu behar zuela, eta hori zela Sodenak eta fundazioak kontratua sinatu baino lehen bete beharreko baldintza.

Kontratua sinatu aurretik bete behar zen beste baldintza bat zen helbide fiskala Nafarroan duen fundazio bat eratu beharra. Fundazio hori 2005eko otsailean eratu zen.

#### **2005. urtea**

2005eko martxoaren 23a. Erakusketaren diseinu, ekoizpen eta errealizatorako kontratua sinatu

zuten Sodenak eta Arte Viva Europa eta Arte Viva Navarra fundazioek. Kontratuaren xede den "erakusketaren proiektuaren" aurrekontu osoa, BEZa gabe, hiru milioi eurokoa da.

Lan-taldea, sinatutako kontratua ikusita, "jarraipen eta kontrol batzorde" izendatzera igaro zen.

2005eko apirilaren 18a. Jarraipen eta kontrol batzordeak erakusketako bi komisario izendatu zituen, eta horietako batek dimisioa eman zuen arrazoi pertsonalak zirela eta.

2005eko irailaren 21a. Jarraipen batzordeak erakusketaren proiektu exekutiboan onetsi zuen. Proiektuak, aurreproiektutik abiatuta idatzia, zehaztasunez deskribatu zituen erakusketaren exekuzioa, erakusketako osagai, jardura edo unitate bakoitzaren memoria balioetsia eta horien ekoizpen-epeak, betiere aurreproiektuaren mugen barruan.

#### **2006. urtea**

2006ko apirilaren 6a. Jarraipen batzordeak erabaki zuen ezen Sodenak arduratuko zela erakusketarako babesleak lortzeaz, eta erakusketa doakoa izanen zela.

2006ko irailaren 7a. Batzordeak erabaki zuen erakusketa 2006ko irailaren 30ean inauguratuko zela.

2006ko urriaren 1a - 2007ko urtarrilaren 7a. Erakusketa egin zen.

#### **2007. urtea**

2007ko otsailaren 14a. Erakusketa likidatu eta ixteari buruzko akta egin zen, eta hartan ziurtatu zen erakusketa osorik desmuntatu zela eta erakusketako materialak Sodenaren biltegira eraman zirela.

2007ko ekainaren 26a. Sodenako zuzendari nagusiak Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilariari eskatu zion abiatu beharreko prozedura abia zezan Sodenari erakusketaren defizita itzultze aldera.

### **IV.2. ERAKUSKETAREN EKONOMIA-EMAITZA**

#### **IV.2.1. Erakusketaren ekonomia-eraketa**

Erakusketaren gastu osoa, BEZa barne, 3.766.570 eurokoa izan zen, eta ondoko kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Hartzekodunak
Diseinua, ekoizpena eta errealizazioa	3.480.000	Arte Viva fundazioa
Erakusketa aretoa alokatzea	194.880	Baluarte S.A.
Publizitatea	91.690	Nafarroako Gobernuak kontratatua
<b>Erakusketaren gastu osoa</b>	<b>3.766.570</b>	

Sodenak ordaindu ditu gastu guztiak, publizitatea kenduta. Sodenak balantzeko zordunen kontu batean kontabilizatzen ditu erakusketa dela-eta egindako gastu guztiak, eta ez dizkio egotzen, haren jardueraren operazio gisa, emaitzen kontuari.

**Erakusketaren diseinua, ekoizpena eta errealizazioa:** Arte Viva fundazioak bete zituen fase horiek, aurreikusitako hiru milioi euroko zenbatekoan bete ere, gehi BEZa. Gastu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Exekuzio materiala	2.004.691
Zuzendaritza eta koordinazioa	467.227
Komunikazioa eta publizitatea	250.182
Proiektu pedagogikoa	160.400
Web orria	18.500
Talde bereziak artatzea	24.000
Egile eskubideak	75.000
<b>Aurrekontua, BEZik gabe</b>	<b>3.000.000</b>
BEZa, % 16	480.000
<b>Aurrekontua, guztira</b>	<b>3.480.000</b>

Txosten honen I. eranskinean azaltzen dira kapitulu bakoitzean sartutako gastuen kontzeptuak.

Sodenak ondotik zehazten diren egunetan egin zizkion ordainketak fundazioari:

Ordainketaren data	Zenbatekoa, guztira	Egiaztagiria
2004/12/29	300.000	Asmo-akordioaren sinadurako aurrerakina
2005/04/12	682.500	Kontratua sinatzearekin batera (2005eko martxoaren 23a)
2005/10/27	682.500	Proiektu exekutiboa onestea (2005eko irailaren 21a)
2006/07/17	522.000	Data egiaztatzeako akta (2006ko ekainaren 29a)
2006/09/26	174.000	Data egiaztatzeako akta (2006ko irailaren 1a)
2006/10/19	945.000	Erakusketaren jasotze-akta (2006ko urriaren 6a)
2007/03/28	174.000	Erakusketaren likidazio- eta ixte-akta (2007ko otsailaren 14a)
<b>Ordainketak, guztira</b>	<b>3.480.000</b>	

Fundazioak Sodenari fakturatu dio erakusketa-rako aurreikusitako kostu osoa. Fundazioaren auditoreak ziurtatzen duenez, kontratuari jarraikiz erakusketarako onetsitako aurrekontutik heldu diren kontzeptu eta zenbatekoei aplikatu zaizkie Sodenak egindako ordainketak.

Kontratuan ezartzen denez, ordainketa guztiak behin-behinekoak dira eta aurrekontuaren kontura egin dira, halako moduz non soilik bateratzen diren erakusketa bukatutakoan, eta horien aplikazioa behar bezala justifikatu da aipatu kontratuan ezarritakoarekin bat. Halatan, kontratuak ezartzen du ezen fundazioak aurkezten dituen egiaztapen materialeko aktekin bat ordainduko zaizkiola fundazioari egindako lanak eta erakusketako unitate bukatuak.

Erakusketako komisarioak egiaztapen materialeko bi aktatan ziurtatu zuenez, proiektu exekutiboa aurreikusitakoarekin bat etorri egin ziren materialak eskuratu eta garatzeko lanak -balioetsi gabeko zerrenda batean zehazturik ageri direnak eta muntatzea bera.

Ordainketek fundazioak Sodenari jaulkitako fakturak dituzte oinarri, eta aurreikusitako egunetan egin ziren, kontratuan ezarritako agiriak alde aurretik aurkeztuta.

Fundazioak bi abal eratu zituen, 682.500 eurokoak biak, Sodenaren alde, enpresa publikoak zenbateko horiengatik fundazioari egin beharreko ordainketen berme gisa.

**Baluartea alokatzea:** Sodenak 194.880 euro ordaindu dizkio Baluarteri, 2006ko uztailetik 2007ko urtarrilera bitarteko alokairua dela eta. Gastu hori 2006ko uztailen ordaindu zen osorik.

**Publizitate gastuak:** Publizitatea zuzenean kontratatu eta ordaindu zuen Nafarroako Gobernuak. Erakusketako publizitate gastuek 91.690 euro egiten dute guztira, eta Nafarroako Gobernuaren 2006ko ekitaldiko aurrekontu orokorren kargura finantzatu ziren.

#### IV.2.2. Erakusketako dirusarrerak

Erakusketak ez du batere dirusarrerarik ekarri; izan ere, doakoa izan zen, eta, babesletza-akordiorik sinatu ezenez, ez da babeslee-dirusarrerarik jaso.

Sodenari eskumen osoa eman zitzaion erakusketarako babesletza akordioak egiteko, eta hortaz Sodenari dagozkio proiektua finantzatze aldera babesleek eginiko ekarpenak.

#### IV.2.3. Erakusketaren defizita

Erakusketaren defizita, guztira, 3.766.570 eurokoa izan da, eta dirusarrerarik izan ez denez gero, erakusketaren gastu osoarekin bat dator.

Arte Viva fundazioak 2007ko otsailean aurkeztutako azken txostenean jasotzen denaren arabera, erakusketa 33.350 pertsonak bisitatu zuten, gehienak nafarrak.

### V. ONDORIOAK

1 - "Navarra, un futuro entre todos" erakusketak -Nafarroako Gobernuak Sodena enpresa publikoari agindu zion, eta haren diseinu, ekoizpen eta errealizazioa fundazio batekin kontratatu zuen Sodenak- ez zuen dirusarrerarik ekarri, eta 3.766.570 euroko gastua eragin zuen guztira.

Zenbateko horretatik, publizitate kanpainako 91.690 euro Nafarroako Gobernuaren 2006ko ekitaldirako aurrekontuen kargura ordaindu dira, eta gainerakoa, 3.674.880 euro, Sodenak ordaindu du.

2 - Fiskalizazio txostenaren zirriborroa egin zen egunean, 2007ko urriaren 17an, Sodenak jaso gabe zuen Nafarroako Gobernuaren inolako diru-ekarpenik erakusketa egitetik heldu ziren gastuak finantzatzera bideraturik.

Nafarroako Gobernuaren 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietarako aurrekontu orokorretan ez da jasota ageri erakusketa finantzatzeko gastuetarako krediturik.

3 - Fiskalizazio txostenaren zirriborroa egin zen egunean, 2007ko urriaren 17an, Nafarroako Gobernuak ez zeukan sinaturik erakusketa finantzatzeari buruzko batere akordiorik, Sodenak eta Arte Viva fundazioak 2004ko abenduaren 28an sinatu zuten asmo-akordioan kontrakoa ezarri bazen ere.

Gobernuak, hartara, erakusketaren finantzaketari buruzko akordio bat onetsi eta aurkeztu behar-ko zukeen lanen exekuzio-aldia hasi aurretik eta betiere 2005eko urtarrilaren 15a baino lehen, Sodenak eta fundazioak kontratua formalizatu aurreko baldintza gisa (kontratua 2005eko martxoan sinatu zen).

4 - Nafarroako Gobernuak ez zuen bete 150/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoen bitartez egin beharreko obra, zerbitzu, hornidura eta gainerako jardueren zuzeneko exekuzioa arautzen duena, hartan xedatzen baita enkargua egin aurretik egin behar direla manuzko izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak eta gastua kontrolatu eta oneste-koak.

Enkarguan eta ogasun publikoari buruzko foru legean xedatutakoarekin bat, Gobernuak Foru Komunitateko administrazioaren kasuan kasuko ekitaldiko aurrekontuaren gastuen egoera-orrian sartu behar zituen Sodenari agindutako erakuske-



ta antolatu eta ekoiztetik heldu den betebeharrari aurre egiteko beharrezkoak diren kredituak, bai eta betebeharrak hori baimendu, xedatu eta aitortzea ere.

5 - 2007ko ekainaren 26an, Sodenak gutun bat igorri zion Kultura eta Turismo kontseilariari, zeinaren bidez adierazi baitzion erakusketa antolatzeak ez ziola batere dirusarrerarik ekarri Sodenari, 3.674.880 euroko gastua izan duela guztira eta eskertuko ziola arestian aipatutako defizit hori ordaintzeko abiatu beharreko prozedura abiatzea "2004ko abenduaren 20ko zure gutunarekin bat, zeinetan adierazi baitzenuen zure asmoa zela Gobernuari proposatzea urte anitzeko gastua onesteko akordio bat, aipatu erakusketaren diseinu, ekoizpen eta errealizazioak Sodenari ekar lie-zaiokeen balizko defizita finantzatzeko."

Nafarroako Gobernuak 2007ko abenduaren 31n eginiko bilkuran erabaki zuen, Ganbera honek txostenaren zirriborroan nahiz behin-behineko txostenean egindako gomendioa betetze aldera, 3.674.800 euroko laguntza ematea -2007ko aurrekontuko transferentzia arrunten gastu-kontusail baten kargura- Sociedad de Desarrollo Navarra, S.A.ri, "Navarra, un futuro entre todos" izeneko erakusketa antolatzetik heldu diren gastuak berdintzeko.

Txosten hau auditore M<sup>a</sup> Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**I. eranskina: ERAKUSKETAREN AURREKONTUA, GASTU-KONTZEPTUEN ARABERA**

	Aurrekontua
<b>1. Erakusketaren exekuzio materiala:</b>	<b>2.004.691</b>
Kontzeptua eta diseinua	72.500
Proiektu exekutiboaren erredakzioa	147.000
Aholkulariak	18.000
Arkitektura, altzariak eta eszenografia	357.235
Grafismoa	105.478
Ikus-entzunezko ekipamendua	359.126
Ikus-entzunezko ekoizpena	497.780
Argiztapena	63.154
Seinaletika eta beste batzuk	114.754
Muntatzea eta desmuntatzea	82.940
Mantentze teknikoa	35.254
Erakusketa garaiatzea+ ekipamenduaren aseguruua	41.470
Erantzukizun zibileko aseguruaren prima	10.000
Baluarteko operazioaren kudeaketa (garbiketa, segurtasuna eta arreta egiteko langileak)	100.000
<b>2. Zuzendaritza eta koordinazioa</b>	<b>467.227</b>
Komisarioaren ordainsariak	60.000
Zuzendaritza artistikoa eta teknikoa	180.090
Laguntzako langileak	91.500
Gastu orokorrak	42.967
Bidaia eta egonaldia	92.670
<b>3. Komunikazioa eta publizitatea</b>	<b>250.182</b>
Inudi-kanpainaren diseinua (logotipoa eta abar)	12.600
Katalogoa, triptikoa, afixak eta gonbitak (editatu gabe) diseinatzea	14.700
Telebistako iragarkia egitea (telebistako tartea erostea ez dago hor sartuta)	157.500
Prensaurrekoa koordinatzea	8.445
Kanpoaldeko publizitatearen diseinua (banderatxoak, markesinak, hesiak eta abar)	9.400
Baluarteko fatxadako lona mikrozulatua	7.500
Fatxadako lona instalatu eta kentzea	1.200
Prentsako iragarkiak eta irratiko kuñak	38.837
<b>4. Proiektu pedagogikoa</b>	<b>160.400</b>
Proiektua koordinatzea	45.000
Koordinazioko laguntzailea	5.950
Mailing-a Nafarroako ikastetxe guztietara	500
6 ikasle-hezitzaile	16.200
3 gidari helduentzat	6.300
25 animazio-funtzio (aktoreak, musikariak...)	22.000
3.000 gida didaktiko ikasleentzat (diseinua eta edizioa)	13.500
3.000 ale, ibilbidearen liburuxka	2.600
Ikasmateria	1.500
Tailerretarako material suntsikorra	2.500
Tailerretako altzariak	3.000
10.800 ale, ikasleentzako promozio-opariak	32.400
18 uniforme, hezitzaile eta gidariak	1.350
1500 ale, irakasleen materialak	4.500
Catering-a, 200 irakaslerentzat	1.300
Baliabide teknikoak	1.800
<b>5. Web orria</b>	<b>18.500</b>
Diseinua eta ezarpena	18.500
<b>6. Talde bereziak artatzea</b>	<b>24.000</b>
2 gidari espezializatu minusbaliatuentzat	6.600
Erakusketako osagai bereziak	17.400
<b>7. Egile eskubideak</b>	<b>75.000</b>
Inudi finkoak eta mugikorak, musika eta bestelako eskubideak	75.000
<b>Erakusketaren aurrekontua, guztira</b>	<b>3.000.000</b>
<b>BEZa, % 16</b>	<b>480.000</b>
<b>Erakusketaren aurrekontua guztira (BEZa barne)</b>	<b>3.480.000</b>

### **NAFARROAKO GOBERNUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK**

Nafarroako Gobernuak, kontuan hartuta "Navarra, un futuro entre todos" izeneko erakusketari buruz Comptos Ganberak 2008ko urtarrilaren 7an eginiko behin-behineko txostena, ondoko alegazioa aurkeztu du, behar den epean eta forman.

I. Behin-behineko txostenaren sarreran adierazten den bezala, txostenaren helburua da aipatu erakusketa finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituak fiskalizatzea.

II. Erakusketaren garapenari, eratzeari eta langileei buruzko gainontzeko hausnarketak 2007ko otsailaren 26ko txostenean adierazi zituen Comptos Ganberak.

Horiek horrela,

1. Ez litzateke txosten honetan sartu beharko IV.2 atala, aurreko txostenean sartu baitzen, eta beste horrenbeste V. kapituluko 4. atala, hori ere txosten hartatik heldu baita.

2. Behin-behineko txostenak 2008ko urtarrilaren 7ko data du, eta horri buruz esan beharra dago ezen Nafarroako Gobernuak, 2007ko abenduaren 31n, erabaki zuela baimena ematea Kultura eta Turismo Departamentuaren 2007ko aurrekontuen kargura guztira 3.674.800 euro ordaintzeko Sodena enpresa publikoari, eta horrenbestez betetzat eman zela, behin-behineko txostena eman aurretik bete ere, Nafarroako Gobernuak Sodenarekin zuen konpromisoa, alegia bestelako ekarpenen bidez -kasu honetan ez zegoen halakorik- erakusketan bete gabeko zenbatekoa hari ematekoa. Erabakia hartu izana idatziz jakinarazi zitzaion, 2008ko urtarrilaren 3an, Comptos Ganberari.

3. Halatan, datu garrantzitsu hori txostenean jaso beharko litzateke, erakusketaren finantzaketari buruzko IV.3 kapituluaren azken atal gisa, eta itxiztat eman espedientea Comptos Ganberak

aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta orobat kendu beharko lirateke V. kapituluko 2., 3. eta 6. atalak, bai eta ondoko egitateei buruzko VI. kapitulua ere.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 24an

Lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

### **NAFARROAKO GOBERNUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak aztertuta, Comptos Ganberak ondokoa erabaki du:

Onartu da 1. alegazioa eta ezabatu dugu behin-behineko txosteneko IV.2 kapitulua, "Foru Komunitateko enpresa publikoen fiskalizazioaren ondorioak, erakusketaren diseinu, ekoizpen eta errealizazioaren enkargua eta kontratazioa direla-eta" izenekoa; izan ere, Ganbera honek horri buruz egin zuen txostenean daude jasota lan horren ondorioak.

Hein batean onartu dira 2. eta 3. alegazioak, eta ezabatu dugu V. kapituluko 6. lerrokada, behin-behineko txostenean "ondorioak eta gomendioak" izena duena, eta horrenbestez horren izena aldatu da, gomendioak ezabatu baitira. Aipatu kapituluko 2. eta 3. lerrokadak ezabatzeari dagokionez, eutsi egin zaie, baina zehaztu egin dira Ganbera honek eginiko laneko ondorioen datak. Horri buruz Ganbera honek adierazten du ezen txostenaren zirriborroa 2007ko urriaren 17an egin zela eta 2007ko azaroaren 12an eman zitzaizela auditoriaren xede ziren enteei; Nafarroako Gobernuak Sodenari 3.674.800 euro ordaintzeko erabakia hartu aurretik, hain zuzen.

Horrenbestez, txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2008ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	